

TOBERA Musika-eskolaren

2024/25 ikasturterako matrikulazio-kanpainarako
leloa sortu eta irabazi telefono mugikor bat!

Crea un eslogan y/o grafismo para la próxima campaña de matriculación de TOBERA y gana un teléfono móvil. Envíanos tus propuestas a tobera@tobera.org. ¡Participa!



Maiatzero izenemate-kanpaina egiten du TOBERA Musika-eskolak, hurrengo ikasturterako.

Matrikulazio-kanpaina esaldi labur batekin edo/eta irudi batekin identifikatzen da urtero.

“Musikak on egiten dizu” edo “Hau da TOBERA” – azken hau Aizkorpe bailarako paisaia enblematikoekin batera– leloak erabili izan dira azkenaldian, adibidez.

Hurrengo ikasturtean TOBERAn izena ematera animatzeko, **lelo** edota **irudi** baten bila gabiltza! TOBERAren izaera islatu eta erakargarria izango den esaldi labur edota grafismoa sortu eta bidaliezaguzu **tobera@tobera.org** helbidera.

Jasotzen ditugun proposamen guztien artetik egokiena aukeratuko dugu eta hori izango da 2024/25 matrikulazio-kanpainarako erabiliko duguna. Irabazleak, gainera, 128 GBko TCL 40 SE **telefono mugikor bat** jasoko du opari.

Proposamenak bidaltzeko azken eguna: 2024ko otsailaren 18a (barne).

Edonork har dezake parte lehiaketan. Nahi beste lan aurkez litezke.

Irabazleak Segurara edo Zegamara etorri beharko du gailua (saria) hartzera. TOBERA Musika- eta Dantza-eskola jarriko da harremanetan hautatutako lanaren egilearekin.

TOBERA Musika- eta Dantza-eskolak erabateko eskumena izango du lan irabazlea nahieran moldatu eta erabiltzeko, beharrezko jotzen dituen euskarri eta bitarteko guztietan.

Ez da emaitza profesionalik eskatzen, baina jasotako proposamenetatik bakar batek ere beteko ez balitu gutxieneko kalitate- edo egokitasun-baldintzak, lehiaketa hutsik geratuko da. TOBERAk erabakiko du saria partaideen artean zozketaz banatu ala ez.

Lehiaketan parte hartzeak, honako baldintza guztiak onartzea dakar.